



TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2023KO MAIATZA

Maiatza beroa izan zen Kantauri isurialdean eta ohikoa Mediterraneo isurialdean. Prezipitazioari dagokionez, alde handiak izan ziren zona batzuetatik besteetara: Tolosaldean oso hezea izan zen, ohikoa Kantauri isurialdeko gainerako bailaretan, eta oso lehorra Mediterraneo isurialdean. Arabako Lautadako mendebaldean eta Arabako Errioxan erabat lehorra izan zen. Muturreko meteorologiari dagokionez, nahiko lasaia izan zen, 8 abisu bakarrik igorri ziren, gehienak prezipitazio handiagatik eta bat enbatagatik. Aipamen berezia merezi du hilaren 20ak, orduan trumoi-ekaitz geldikor batzuek 60 mm baino gehiago utzi zituzten Tolosaldean eta Urumea eta Oria ibaia oso bizkor hazi ziren.

Prezipitazioa

Maiatza, prezipitazioari dagokionez, ezberdina izan zen Euskadiko leku batzuetatik besteetara. Kantauri isurialdean, adibidez, Tolosaldea inguruan oso hezea izan zen eta Kantauriko gainerako bailaretan ohikoa. Aldiz, Mediterraneo isurialdean orokorrean oso lehorra izan zen, eta erabat lehorra Arabako Lautadaren mendebaldean eta Arabako Errioxan.

Euri gehien Gipuzkoa ekialdean egin zuen, Tolosaldea eskualdearen inguruan, eta beste eskualde batzuekin konparatuz alde handiarekin (Eskas 324.8 mm, Ameraun 312.8 mm, Añarbe 259.2, Belauntza 234.1 mm, Ereñozu 225.4 mm, Araxes 212.4 mm, Bidania 211.5 mm). Mendebalderantz mugitu ahala, pilatutako euri kopurua txikiagoa izan zen, kostaldeko leku batzuetan eta Bizkaiko mendialdean gorakada txiki batzuk salbu (Urkiola 131.4 mm, Igorre 127.9 mm, Aizarnazabal 125.6 mm). Gainerako tokietan 100 mm baino gutxiago pilatu ziren. Pilatutako kantitateak asko txikiagotzen dira Bizkaia ipar-mendebalderantz mugitu ahala (Almike 50.7 mm, Zalla 57.8 mm, Galindo 80.5 mm, Arteaga 87.5 mm) eta are gehiago Araba hegoalderantz mugitzen bagara edo Arabako Lautadako mendebaldera (Páganos 8.4 mm, Nanclares 12.9 mm, Zambrana 17.5 mm, Tobillas 19 mm, Navarrete 22.6 mm). Mende honi dagokionez, erdialdeko posizioetan daude, Mediterraneo isurialdea izan ezik non maiatzik lehorrenetako datuetara hurbiltzen den (lehorrenak 2201, 2015 eta 2022 izan ziren).

Euri-egunen kopuruak ez ditu eskualdeen arteko desberdintasun horiek hain modu nabarmenean adierazten. Horrela, Bilboko eta Donostiako erreferentziatzko estazioetan ia batezbesteko klimatologikoko egunak izan ziren, 11 edo 12 egun, eta Vitoria-Gasteizen egunen bat gutxiago, hau da, 7 euri-egun izan ziren eta batezbestekoa 9 da. Arabako Errioxan, aldiz, batezbestekoaren erdiak soilik izan ziren, 4 euri-egun.

Euri-egunen artean, 5 egunetan euria oso ugaria izan zen (> 30 mm), baina batik bat Gipuzkoan.



Maiatzeko bigarren hamabostaldian, itsasoko aire masa hezeak eta goi-geruzetan pilatutako aire hotzak eragindako ezegonkortasunaren ondorioz zaparrada trumoiak bota zituen. Azkenean iritsi zen euria, baina lekuaren arabera oso modu ezberdinean banatu zen. Hilaren 11tik 14rako denboraldi euritsua azpimarratu behar da, 100 mm baino gehiago pilatu ziren Gipuzkoa ekialdean (Eskas 211.2 mm, Añarbe 127 mm, Ameraun 122.4 mm, Berastegi 118.1 mm, Bidania 104.1 mm, Ereñozu 99.7 mm). Eremu horretatik kanpo, Arratia-Nerbioi eta Durangaldean ere kantitate esanguratsuak pilatu ziren (Urkizu 98.6 mm, Urkiola 91 mm, Mañaria 87.3 mm, Iurreta 85.1 mm). Mediterraneo isurialdean zaparradak bakanagoak izan ziren eta euri gehien Gorbea inguruan jaso zen (Gorbea 60.2 mm, Sarria 59.8 mm, Goian 51.1 mm).

Ondoren, bereziki nabarmendu behar da hilaren 20a. Euria ugaria edo oso ugaria izan zen Gipuzkoa ekialdean trumoi-ekaitz geldikor batzuen ondorioz. Tolosaldeako hainbat lekutan 60 mm baino gehiago pilatu ziren (Ameraun 87.5 mm, Belauntza 74.4 mm, Alegia 72.9 mm, Ereñozu 65.8 mm, Araxes 63.1 mm, Andoain 60.1 mm). Ohiz kanpokoak izan zen gertaera eta hori adierazten dute gaitututako errekorrek: estazio batzuetan XXI. mendeko eguneko prezipitazio maximoen errekorra gaitutu zen (Alegia, Araxes, Berastegi, Zizurkil) eta beste bitan ordubetea pilatutako prezipitazio maximoen errekorra (Belauntza, Ereñozu). Bestalde, zaparrada handien ondorioz, eremu horretako ibaien maila bizkor igo zen eta hilaren 20an, goizeko lehen orduetan, Urumea ibaiak maila gorria gaitutu zuen Ereñozuko estazioan. Oriako arroan ere izan zuen eragina euri-jasak, eta maila horia gaitutu zen Belauntza, Andoain eta Lasarteko estazioetan.

Maiatzeko azken egunetan, konkretuki hilaren 28tik 31ra bitartean, zaparrada trumoiak nabarmendu ziren, noizbehinka txingorra ere egin zuen, eta bereziki Araban bota zituen. Horrela, hilaren 30ean adibidez, Mediterraneo isurialdearen mendebaldean zaparrada handiak bota zituen (Orduña 23.1 mm/h, Espejo 20.1 mm/h, Gorbea 17.3 mm/h). Jakin badakigu ekaitzek arazoak sortu zituztela Arabako zenbait herritan, hala nola Fontechan, Villambrosan edo Bergüendan.

Taula 1: Azken urteetan maiatzean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
Zorrotza	67.4	22.4	50.1	44.6	62	66.5	51.8	42.8	52.6	43.1
Lasarte	106.0	44.8	69.7	104.2	164	114.3	70.7	83.8	75.6	102.4
Arrasate	101.3	29.1	39.8	89.5	131.7	81.3	52.5	59.7	100.7	102.9
Abetxuko	28.3	17.4	39.5	56.9	46.8	53.2	41.7	32.4	16.2	35.0
Párganos	9.7	7.5	18.0	40.5	31.1	47.5	31.5	22.1	2.9	25.1



Tenperatura

Tenperaturari dagokionez, orokorrean maiatza beroa izan zen Kantauri isurialdean eta ohikoa Mediterraneo isurialdean. Kostaldean batez besteko tenperatura 15-16 °C artekoa izan zen eta Arabako Lautadan 13 °C ingurukoa, gutxi gorabehera 1981-2010 denborali normaleko batezbestekoa baino 0.9 °C altuagoa. Mende hau kontuan hartuz, balio hauek erdialdeko posizioetan daude, beroenetatik urrun (2017, 2020 eta 2022).

Temperaturaren bilakaerarik dagokionez, maiatza egun beroekin hasi zen, anomalia nahiko handiekin; hilabeteko bigarren herenean egun-hotzak nagusitu ziren, eta azken herenean egun beroak tartekatzen hasi ziren. Hilabetea egun-beroekin amaitu zen.

Tenperatura balio baxuenak hilaren 2an neurtu ziren, zeroz azpiko balioak neurtu ziren Arabako Mendialdeko zenbait lekutan eta Arabako Lautadako ekialdean; denboraldiko azken izozteak izan ziren (Pagoeta -1.3 °C, Iturrieta -1.3 °C, Navarrete -1.2 °C, Salvatierra -1 °C, Albaina -0.9 °C, Etura -0.2 °C). Gaueko irradiazioagatik izan ziren izozteak, gauean oskarbi egon zelako. Kantauri isurialdean, ordea, minimo absolutuak hilaren 16tik 18ra bitartean neurtu ziren, batez ere 17an, egun horretan kostaldetik hurbil dauden estazio batzuetan 10 °C-tik behera jaitsi zen tenperatura (Inurritza 7.1 °C, Arteaga 7.5 °C, Oiartzun 8.1 °C, Santa Clara 8.9 °C).

Tenperatura minimoekin jarraituz, azpimarratu behar dira hilaren 27tik aurrera izan genituen minimo altuak, bereziki Kostaldeko eskualdeetan, 14-18 °C arteko balio epelekin.

Hilaren 3an Iberiar penintsula gailur zabal baten eraginpean egon zen, alde banatara depresioak zituela. Hegoaldeko fluxuak indartu egin ziren eta hilabeteko maximo absolutuak neurtu ziren. Balio altuenak kostaldeko eskualdeetan neurtu ziren, 30 °C-ak aise gainditu ziren kasu askotan, eta batezbesteko klimatologikoa baino 8 °C altuagoko datuak izan genituen (Arteaga 33.8 °C, Derio 33.3 °C, Higer 33.2 °C, Oiartzun 32.3 °C). Kantauriko bailaretan gorago dauden estazioetan ere balio altuak neurtu ziren (Zalla 32.8 °C, Elorrio 32.8 °C, Alegia 32.7 °C, Oñati 31.6 °C). Mediterraneo isurialdean balioak ez ziren hain altuak izan, 28 °C ingurukoak (Goiaín 28.5 °C, Arkauti 28.3 °C, Espejo 28.3 °C, Ozaeta 28.2 °C). Iluntzean haizeak bat-batean eta zakar mendebal/ipar-mendebaldera egin zuen eta tenperatura asko jaitsi zen.

Egun hartatik aurrera maximoak pixkanaka jaitsi egin ziren, hilaren 10era arte, orduan egonkortu egin ziren, eta egun askotan ia ez zuten aldaketarik izan. Hilaren 26tik aurrera asko igo zen tenperatura, eta maximoetan gorakada bat izan zen, kasu horretan Kantauriko bailaretan (Gardea 31.5 °C, Alegia 30.5 °C, Igorre 30.3 °C, San Prudentzio 30.3 °C), hala ere ez ziren iritsi hilaren 3ko balioetara.

Intsolazioa ere ohi baino pixka bat handiagoa izan zen, %7 handiagoa, Araba erdialdean izan ezik, han ia batezbestekoaren balioak izan ziren. Hiriburuei dagokionez, Bilbon 180 eguzki-ordu izan ziren, Donostian 191 eta Vitoria-Gasteizen 197.

Taula 2: Maiatzean, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan

	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
Zorrotza	16.9	17.7	14.8	17.8	14.7	14.6	17.2	16.7	16.5	14.9
Lasarte	15.4	16.4	14.1	17.3	13.2	14.3	16.8	15.5	15.5	14.1
Arrasate	14.7	16.4	13.4	16.1	12.0	12.8	16.4	14.0	14.5	12.7
Abetxuko	13.1	15.0	12.3	15.7	11.9	12.3	15.8	13.6	14.5	12.7
Páganos	15.0	17.4	14.5	16.7	13.0	13.5	17.1	14.1	15.9	13.5

Haizea

Haizeari dagokionez, lehenengo eta laugarrengo koadranteko haizeak nagusitu ziren, bereziki laugarrenekoak, eta orokorrean intentsitatea txikia izan zen. 100 km/h-tik gorako haize-boladarik ez zen neurtu, eta maiatzeko haize-boladarik indartsuenak eskala sinoptikotik kanpo dauden fenomenoek eragin zituzten, adibidez hilaren 3an gertatu zen enbatak. Egun batzuetan, bereziki hilabeteko lehen egunetan, bigarren eta hirugarren koadranteko haizea ere ibili zen, baina indar handirik gabe.

Hilaren 1ean eta 2an iparraldeko eta ipar-ekialdeko haizea nagusitu ziren, aldiz hilaren 3tik 6ra hegoaldera egin zuen haizeak eta pixka bat indartu zen. Hilaren 3an, azpimarragarria izan zen egunaren amaiera kostaldean izan zen mendebal/ipar-mendebalderako haizea aldaketa. Haizea aldaketaren unean 90 km/h-tik gorako haize-boladak neurtu ziren (Santa Clara eta Matxitxako 95.3 km/h, Punta Galea 93.5 km/h), gainera, tenperatura 7-8 °C inguru jaitsi zen denbora gutxian, baita 10 °C ere Bizkaiko kostaldeko mendebaldeko muturrean. Haizeguneetan hilabete osoan neurtu ziren haize-boladarik gogorrenak izan ziren, eta haizeguneak ez diren lekuetan ere nabaritu zen aldaketa (Ordunte, 76.6 km/h). Haizearekin loturiko abisu hori bakarra orduan igorri zen. Hilaren 6an hegoaldeko haizeak indarra galdu zuen eta iparraldera egin zuen, Araba hegoaldean indartuz (Paganos 85 km/h).

Hilaren 7tik aurrera haizea lokala izatera pasa zen, nahiz eta arratsaldeetan ipar-osagaiko haizea nagusitu. Barnealdeko zenbait lekutan haizea bizi ibili zen, batez ere Araba hegoaldean. Egoera hori horrela mantendu zen hilaren 8ra arte, eta inongo estaziotan ez zen neurtu bolada gogorrik.



Hilaren 9tik 20ra bitartean laugarren koadrantea haizea nagusitu zen eta orokorrean ez zuen indar handirik izan. Zenbait egunetan haize-bolada oso gogor batzuk neurtu ziren, baina noizbehinka. Hilaren 17an, Paganoseko estazioan 90 km/h-ko haize-bolada neurtu zen, haizeguneak ez diren tokietan hilabete osoan neurtu zen haize-boladarik gogorrena.

Hilaren 21etik aurrera haizea aldakorra izatera pasa zen, nahiz eta orokorrean iparraldekoa nagusitu barnealdean, batez ere arratsaldeetan, orduan gainera indartu egiten zen, batez ere Araba hegoaldean non haize-boladarik gogorrenak neurtu ziren. Adibidez, hilaren 28an, Paganoseko estazioan iparraldeko 77.6 km/h-ko haize-bolada neurtu zen. Kostaldean mendebal/ipar-mendebaldeko haizea nagusitu zen. Hilaren 26an eta 27an eki-osagaiko haizea ibili zen.

Analisia

Maiatzaren 1etik 8ra

Maiatza eguraldi egonkorrekin hasi zen, izan ere lehenengo egunetan egoera antiziklonikoa nagusitu zen. 500 hPa-eko mailan gailur bat zabaldu zen Afrika iparraldetik Iberiar penintsularen iparralderaino eta baita Frantziarantz ere. Ondorengo egunetan ekialderantz mugitu zen. Azalean presio altuak Kantauri itsasoan zentratu ziren eta gero Mantxako kanalerara mugitu ziren, 1032 hPa-eko balioarekin hilaren 2an eta 3an. 850 hPa-eko mailan ere gailur termiko bat ikusten zen, Iberiar penintsularen hegoaldean 18-21 °C arteko balioekin. Horrela, zeruan hodei gutxi sortu ziren eta tenperatura maximoak 34-35 °C-raino igo ziren Kantauri isurialdearen barnealdean hilaren 3an, izan ere hegoaldeko haizea nagusitu zen. Hilaren 6an eguraldia ezegonkortu egin zen eta arratsaldean zaparrada trumoitu batzuk bota zituen.

Maiatzaren 9tik 14ra

Eguraldia erabat aldatu zen hilaren 9tik aurrera, Atlantikoko fronte hotz bat iritsi baitzen. Frontea ez zen oso emankorra izan, baina atzetik beste fronte batzuk iritsi ziren eta nabarmen ezegonkortu zen eguratsa ondorengo egunetan. 500 hPa-eko mailan aska bat sortu zen eta Bizkaiko Golkora iritsi zen hilaren 11n eta 12an. Azalean Atlantikoan presio altuak nagusitu ziren eta Britainiar uharteetaraino luzatu ziren; Pirinio eta Alpe inguruan presio baxuak zeuden, eta presio baxuei loturiko fronte batzuk eragin ziguten hilaren 11n eta 13an. Ipar-osagaiko haizeak denboraldi horretan hodei ugari eta euria ekarri zituen; zaparradak sarri bota zituen ipar isurialdean. 850 hPa-eko mailan tenperatura asko jaitsi zen, hilaren 3an 18 °C izatetik hilaren 13an 1-2 °C eskas izatera pasatu ginen; hots, batezbestekoa baino balio nabarmen baxuagoak.

Maiatzaren 15etik 21era

Egun horietan egoera sinoptikoa ez zen asko aldatu. Atlantikoan presio altuekin jarraitu genuen, gainera Europa iparraldera luzatu ziren, eta Mediterraneoan eta Afrika iparraldean presio baxuekin. Konfigurazio horrekin *Minerva* depresioa sortu zen Italian eta Emila-Romagna eskualdean uholde historikoak eragin zituen.



Gurean lehen koadranteako fluxua nagusitu zen eta eguraldiak egonkortzera egin zuen orokorrean, nahiz eta hilaren 16an, zaparrada gogor batzuk bota zituen Gipuzkoan. Bestalde, hilaren 20n jazotako euriteak aipamen berezia merezi du, izan ere eremu txiki batean, Urumeako arroan, trumoi-ekaitz iraunkor batzuek 200 mm baino gehiago utzi zituzten.

Maiatzaren 22tik 25era

Denboraldi luze batean goi-geruzan aire hotz sartu zen eta azkenean Gibraltarko itsasartean depresio askatu bat sortu zen; Andaluzian eta Levanten zaparrada handiak eta uholdeak eragin zituen. Azalean presio altuak nagusitu ziren Atlantikoan, Europa iparraldera luzatuta, eta Mediterraneoan aintzira barometrikoa eratu zen eremu batean. Kantaurin lehenengo koadranteako haizea nagusitu zen. Garairako giro freskoa izan genuen, baina euri gutxi egin zuen. Hilaren 25ean depresio askatu bat iritsi zen Kantaurira: ezegonkortasuna handitu egin zen eta aire masa hotza sartu zen goi-geruza eta geruza ertainetan; 850 hPa-eko mailan tenperatura 2 °C-raino jaitsi zen.

Maiatzaren 26tik 31ra

Maiatzaren 26an aipatu berri dugu depresio askatua Iberiar penintsulatik Atlantikora mugitu zen, mugimendu atzerakoia. Ia Azoreetaraino iritsi zen eta gero maiatzaren azken egunetan Iberiar penintsulara bueltatu zen. Azalean antizikloi indartsu bat Britainiar uharteen inguruan zegoen, Europa erdialdera eta iparraldera zabalduta. Bestalde, Mediterraneoan, ia egun guztietan aintzira barometrikoa izan zuten. Eragile guzti horiek Iberiar penintsulara ezegonkortasuna ekarri zuten: zaparrada trumoiatsuak bota zituen, eta ia egun guztietan zaparradak handiak edo oso handiak neurtu ziren. Zaparrada trumoiatsuengatik lurralderik kaltetuena Araba izan zen, batez ere hilaren 28tik aurrera. Tenperatura ohiko balioetara bueltatu zen eta aintzira barometrikoa nagusitu zenez, egunaren erdialdeko orduetan ipar-osagaiko haizea ibili zen.




Oinarritzko datu estatistikoak

Taula 3: 2023ko maiatzeko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.


Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri- egunak.
Zorrotza	16.9	20.7	33.0	13.3	9.1	0	67.4	19.5	11
Lasarte	15.4	19.4	31.5	11.6	7.2	0	106.0	45.7	9
Arrasate	14.7	20.1	31.5	10.2	6.0	0	101.3	27.0	10
Abetxuko	13.1	19.3	27.3	7.3	1.7	0	28.3	10.3	7
Páganos	15.0	20.9	27.4	10.1	5.2	0	9.7	4.0	4

Eguneko tenperatura eta prezipitazioaren grafikoak



Pilututako prezipitazioa
 Tenperatura minimoa
 Batez besteko tenperatura
 Tenperatura maximoa

Prezipitazioaren jokaera





Muturreko balioak

Maiatzean eguneko prezipitazio maximoa.

Izena	Aurreko errekorra XXI . mendea (mm)	Data	Aurtengo errekorra XXI. mendea (mm)	Data	Estazioa jarritako urtea
Alegia	59.8	24/05/2009	72.9	20/05/2023	1999
Araxes	49	18/05/2013	63.1	20/05/2023	2011
Berastegi	73.8	06/05/2003	85.3	20/05/2023	2000
Zizurkil	63.2	06/05/2003	64.6	20/05/2023	2000

Maiatzean prezipitazio maximoa ordubetea.

Izena	Aurreko errekorra XXI . mendea (mm)	Data	Aurtengo errekorra XXI. mendea (mm)	Data	Estazioa jarritako urtea
Belauntza	14.5	23/05/2008	16.9	20/05/2023	1999
Ereñozu	31.4	10/05/2020	35.1	20/05/2023	1999
Orduña	21.8	25/05/2017	23.1	30/05/2023	1999

Maiatzean prezipitazio maximoa 10 minutuan.

Izena	Aurreko errekorra XXI . mendea (mm)	Data	Aurtengo errekorra XXI. mendea (mm)	Data	Estazioa jarritako urtea
Orduña	8.5	25/05/2017	9.4	30/05/2023	1999

Muturreko egoerak

Maiatzean 8 abisu hori igorri ziren, ondoren azaltzen diren kausen arabera banatuta: 7 prezipitazio handiagatik eta 1 enbatagatik.

- Hilaren 3an Kantauri isurialdean bero handia egin zuen, batez ere ipar-mendebaldean, eta temperatura maximoak 30 °C-tik gorakoak izan ziren. Kostaldean hego-ekialdeko haize ahul-bizia ibili zen, bolada gogor batzuekin, batez ere goizean goiz. Ilunabarrean Punta Galean haizea mendebal/ipar-mendebaldera aldatu zen zakarki eta temperatura 29 °C-tik 19.5 °C-ra jaitsi zen 20 minutuan. Haizearen aldaketa kostalde osoan zabaltu zen gero eta Matxitxakon eta Santa Clara haize-boladek 95 km/h-ko abiadura gaintu zuten; temperatura 30 minutuan 7-8 °C inguru jaitsi zen haizea aldatu ondoren. Gipuzkoako ekialdean Bizkaiko mendebaldean baino bi ordu geroago aldatu zen haizea.

Estazioa	Haize-bolada, hilak 3 (km/h)	Ordua UTC
Punta Galea	86.4	19:00
Matxitxako	95.3	19:20
Almike	80.1	19:20
Santa Clara	95.3	21:10
Jaizkibel	72.3	21:20

Asteazkena, hilak 3: Abisu Horia itsasaldeko arriskua: enbatagatik 21etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 13an, goizean, Gipuzkoako ipar-ekialdean zaparrada ertainak bota zituen. Zaparradak ez ziren handiak izan, baina Eskasen ia 15 mm pilatu ziren ordubetea. Itsasaldean trumoi-ekaitzak izan ziren, baina ez ziren barnealdera sartu. Gainerako tokietan ez zuen apenas euririk egin, baina Eskasen euria sarri egin zuen, goizean ia etengabe, eta egun horretan 60 mm baino gehiago pilatu ziren. 10 minutuan pilatutako euria 2-3 mm ingurukoa izan zen, baina eguerdi aldera 5.5 mm/10 min pilatu ziren. Hilaren 14an ere zaparradak lehertu ziren, kasu honetan ia lurralde osoan. Goizean Gipuzkoan ekaitzak jo zuen eta zenbait lekutan ordubetea pilatutako prezipitazioa 15 mm ingurukoa izan zen berriro ere (Eskas, Amaraun). 10 minutuan pilatutako euria 3 mm ingurukoa izan zen orokorrean, baina noizbehinka 5 mm/10 min pilatu ziren. Euria tarteka egin zuenez, ez ziren 60 mm pilatu 24 orduan.

Estazioa	Prezipitazioa, hilak 13 (mm/h)	Ordua UTC
Eskas	14.8	09:50
Behobia	13.8	09:30

Estazioa	Prezipitazioa, hilak 13 (mm)
Eskas	62.8



Estazioa	Prezipitazioa, hilak 14 (mm/h)	Ordua UTC
Eskas	14.4	08:10
Ameraun	14.3	05:40
Behobia	13.5	08:00

Larunbata, hilak 13: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Gipuzkoan 03etatik 12etara ordu lokala.

Igandea, hilak 14: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Bizkaian eta Gipuzkoan 06etatik 15etara ordu lokala.

- Hilaren 20an, goizaldean eta goizean goiz Gipuzkoako ekialdean euria barra-barra egin zuen, batez ere Nafarroa eta Gipuzkoa arteko mendi inguruetan. Esparru txiki batean zaparrada mardulak etengabe bota zituen arren, gainerako tokian euria oso urria izan zen. Bizkaian eta Arabako mendebaldean ez zuen ia euririk egin, eta Gipuzkoako mendebaldean, kostaldean eta Arabako ekialdean euria ez zuen hain sarri eta ugari egin. Zaparradak handiak izan ziren, zenbait lekutan oso handiak (Ereñozu, 35.1 mm/h). Horrez gain, goizaldean ekaitzak jo zuen eta zaparradez gain txingorra ere bota zuen. Goizean trumoi-ekaitzak desegin baziren ere, euria etengabe egiten jarraitu zuen eta zenbait estaziotan 60 mm baino gehiago pilatu ziren, Ameraunen eta Berastegin 80 mm baino gehiago; bi leku horietan 60 mm inguru pilatu ziren 6 orduan. Euri-intentsitate handiagatik, ibaien mailek gora egin zuten azkar eta goizean goiz Urumea ibaia maila gorriara igo zen, Ereñozuko estazioan hain zuzen ere. Oriako arroan ere arazoak izan ziren, Belauntzan, Andoainen eta Lasarten ibaia maila horira heldu baitzen, azken bi estazio horietan maila larriagatik gertu. Egunaren erdialdeko orduetan atertuz joan zen eta arratsaldetik aurrera aterti eutsi zion orokorrean. Horri esker, arratsaldea aurrera joan ahala ibaien mailak jaitsi ziren. Añarbeko Urak erakundearen arabera, hiru orduan 240 mm baino gehiago pilatu ziren, egun batean pilatutako prezipitazio maximoa. Horrez gain, Nafarroako iparraldean ere zaparrada mardulak bota zituen eta Beran, Lesakan, Goizuetan edo Aranon uholdean eta arazo ugari jazo ziren.

Estazioa	Prezipitazioa, hilak 20 (mm/h)	Ordua UTC
Ereñozu	35.1	04:40
Añarbe	25.1	02:20
Zizurkil	22.6	09:00
Ameraun	21.6	02:40
Andoain	20.6	06:10
Berastegi	18	02:40
Eskas	17.9	03:00
Belauntza	16.9	04:10
Bidania	16.8	09:40



Larunbata, hilak 20: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik 09etara ordu lokala.

- Hilabetearen amaieran Iberiar Penintsularen barnealdean ezegonkortasuna handia izan zen eta hilaren 28tik 31ra zaparrada ertainak eta trumoitsuak bota zituen, batez ere Araban. Hilaren 28an Espejon zaparrada trumoitsuekin batera txingor ertaina bota zuen. Egun horretan zaparradak handiak izan ez ziren arren (Kanpezun 6.2 mm pilatu ziren ordubetea) Lizarran zaparrada mardulak bota zituen, uholdeak eta kalteak eragin zituztenak. Hilaren 29an ere Arabako hegoaldean zaparrada ertainak eta trumoitsuak bota zituen (Moreda, 5 mm/10 min eta 6.9 mm/h); egun horretako trumoi-ekaitz handienak Nafarroakoak, Errioxakoak eta Burgoseko iparraldekoak izan ziren. Hilaren 30ean Mediterraneo isurialdeko mendebaldeko zenbait tokitan zaparrada handiak bota zituen eta Arabako herri batzuetan (Iturriestarian, Villambrosan edo Bergondan, esate baterako) arazoak izan ziren euriagatik. Hilaren 31n Arabako hego-mendebaldean baino ez zuen euria egin eta zaparradak ez ziren handiak izan (Trebiño 11.8 mm/h, Herrera 10.8 mm/h).

Estazioa	Prezipitazioa, hilak 30 (mm/h)	Ordua UTC
Orduña	23.1	15:40
Espejo	20.1	14:20
Gorbea	17.3	15:20

Igandea, hilak 28: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Araban 15etatik 21etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 29: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Araban 15etatik 21etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 30: Abisu Horia prezipitazio handiagatik barnealdean 15etatik 21etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 31: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Ebro ondoko eskualdean 15etatik 21etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Temperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Temperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Temperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Temperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

Tenperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke: <https://www.euskalmet.euskadi.eus/dibulgazioa/estilo-gidaliburua/>

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatze daude.